

GAIAk BDCCrentzat deitutako administrazio-klausula partikularren karatula, prozedura irekiaren bitartez hainbat zerbitzu-prestazio esleitzeko

<p>1. Kontratuaren izena</p>	<p>Euskadiko Kultura eta Sormen Barrutiarentzako (hemendik aurrera, "BDCC") aholkularitza espezializatuko kontratua. Jakintza Industrien eta Teknologia Aplikatuko Klusterraren (hemendik aurrera, "GAIA") barnean hartutako erakundea da BDCC.</p>
<p>2. Erakunde kontratatzailea (datuak) eta kontratatzaile-profila</p>	<p>GAIA ("Erakunde Kontratatzailea"); xede hauetarako helbidea: Uribitarte pasealekua 3, 3. solairua, 48001, Bilbo (Bizkaia).</p> <p>Telefonoa: 627 671 552</p> <p>Erakunde kontratatzailearen webgunea: https://gaia.es/</p>
<p>3. Kontratuaren xedea</p>	<p>Kontratuaren xedea aholkularitza espezializatuko zerbitzuak ematea da, honako lote hauetan banatua, lote bakoitzaren zehaztapena baldintza teknikoen agirian jasota dagoelarik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1. LOTEA: Aholkularitza-zerbitzua gogoeta estrategikoan eta negozio-ereduan. - 2. LOTEA: Aholkularitza-zerbitzua finantzetan eta marketinean. - 3. LOTEA: Jabetza Intelektualerako aholkularitza-zerbitzua: - 4. LOTEA: Trantsizio Digitalerako aholkularitza-zerbitzua: - 5. LOTEA: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako aholkularitza-zerbitzua. - 6. LOTEA: Nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzua
<p>4. Betetzeko/irauteko gehieneko epea</p>	<p>Kontratuaren sinaduratik 2024ko abenduaren 31ra bitarte.</p> <p>Iraupena ezartzeko kontuan hartu dira, batetik, proiektuaren finantzaketaren aurrekontu-ezaugarria, eta, bestetik, zerbitzu guztiak 2024ko urte naturalaren barruan fakturatu beharra.</p>
<p>5. Kontratuaren luzapena</p>	<p>Ez.</p>
<p>6. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, kontratuaren balio zenbatetsia eta kontabilitate-errubrika</p>	<p>Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua honako hau izango da: EHUN ETA HOGETA HAMABOST MILA EURO (135.000 €), gehi dagokion BEZa, honela banakatuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1. LOTEA: Aholkularitza-zerbitzua gogoeta estrategikoan eta negozio-ereduan: HOGETA BOST MILA EURO (25.000 €), gehi dagokion BEZa. - 2. LOTEA: Aholkularitza-zerbitzua finantzetan eta marketinean: HOGETA BOST MILA EURO (25.000 €), gehi dagokion BEZa. - 3. LOTEA: Jabetza Intelektualerako aholkularitza-zerbitzua: HOGETA BOST MILA EURO (25.000 €), gehi dagokion BEZa. - 4. LOTEA: Trantsizio Digitalerako aholkularitza-zerbitzua: HOGEI MILA EURO (20.000 €), gehi dagokion BEZa. - 5. LOTEA: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako aholkularitza-zerbitzua: HOGEI MILA EURO (20.000 €), gehi dagokion BEZa.

		<p>- 6. LOTEA: Nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzua: HOGEI MILA EURO (20.000 €), gehi dagokion BEZa.</p> <p>Balio zenbatetsia kalkulatzeko, zerbitzuen merkatu-prezioaren kalkulu metodoa aplikatu da.</p>
7.	Loteak izatea	Bai.
8.	Loteetarako mugak eta eskaintza integratzailea egiteko aukera	Ez da egokia. Zerbitzu baten baino gehiagoren eskaintza integratzaileak aurkezteko aukera izango da.
9.	Prozedura mota, izapidetze modua eta prozedurari aplikatu beharreko arauak	<p>Irekia.</p> <p>Izapidetze arrunta, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen bigarren Liburuko I. Tituluko I. Kapituluko 2. Atala analogiaz betez.</p>
10.	Agiriak eta gainerako dokumentuak lortzeko lekua eta lekuan bertan bisitak egiteko aukera.	Erakunde Kontratatzailearen kontratatzaile-profila aurreko 2. puntu an adierazi da.
11.	Behin-behineko bermea	Ez.
12.	Behin betiko bermea	Ez.
13.	Eskaintzak aurkezteko muga-epea	<p>2023ko azaroaren 3a, 12:00ak arte.</p> <p>Eskaintzak fisikoki aurkeztu ahaliko dira, gutun-azal itxiaren barruan, erakunde kontratatzailearen bulegoetan, edo bestela posta elektronikoko bidez, honako helbide hauetara bidalita: barrio@gaia.es edo vidorreta@gaia.es.</p>
14.	Kaudimen tekniko eta ekonomiko-finantzarioa egiaztatzeko bideak (A GUTUN-AZALA):	<p>Lizitazio honetan parte hartu ahal izateko, lizitatuak beren kaudimena egiaztatu beharko dute honako bitarteko hauen bitartez:</p> <p>a) Ahalmen teknikoa:</p> <p>Lote batera aurkeztu diren enpresek egiaztatu beharko dute, azken 5 urteetan lote horren zerbitzuen antzeko zerbitzuak eman dituztela. Enpresek hori egiaztatu beharko dute enpresa kontratatzaileek emandako ziurtagirien bitartez.</p> <p>b) Kaudimen Ekonomikoa:</p> <p>Enpresek egiaztatu beharko dute, azken 5 ekitaldietan batez beste, aurkeztu diren lotearen lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren halako 1,5 fakturatu izana. Hori egiaztatzeko, aurreko urteetako urteko kontuak aurkeztu ahaliko dituzte enpresek,</p>

	<p>urte batean konturik argitaratu ez badute, haren aurreko urteko emaitzen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkezteko aukera izango dutelarik.</p> <p>Enpresa kontratatzailea enpresa sortu berria bada, hau da, bost urtetik beherako antzintasuna badu, honako hauen bitartez egiaztatuko da haren ahalmen teknikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontratuan parte hartzen duten teknikariak adieraziz. - Kontratuak betetzeko arduradunen titulu akademiko eta profesionalen bitartez. 																																																								
<p>15. Formularen arabera kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa (B gutun-azala) eta haztapen-faktoreak.</p>	<p>Honako dokumentazio hau aurkeztuko da, adierazitako ordena errespetatuz eta balioespen subjektiboko haztapen-faktore hauei jarraikiz:</p> <table border="1" data-bbox="542 582 1500 1456"> <thead> <tr> <th></th> <th>Gehieneko puntuazioa</th> <th>Bikaina</th> <th>Ona</th> <th>Ertaina</th> <th>Oinarrizkoa</th> <th>Ez da ematen edo ez dagokio</th> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td>% 100</td> <td>% 75</td> <td>% 50</td> <td>% 25</td> <td>% 0</td> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Lantaldea</td> <td>28</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Prestakuntza eta trebakuntza orokorra</td> <td>14</td> <td>14,00</td> <td>11,00</td> <td>7,00</td> <td>3,00</td> <td>0,00</td> </tr> <tr> <td>Taldearen esperientzia profesionala oro har</td> <td>14</td> <td>14,00</td> <td>11,00</td> <td>7,00</td> <td>3,00</td> <td>0,00</td> </tr> <tr> <td>Memoria teknikoa</td> <td>20</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Zerbitzuaren antolamendua, erantzuteko denborak eta langileen prestasun-maila</td> <td>12</td> <td>12,00</td> <td>9,00</td> <td>6,00</td> <td>3,00</td> <td>0,00</td> </tr> <tr> <td>Lanaren planifikazioa eta esleitutako baliabideekiko koherentzia</td> <td>8</td> <td>8,00</td> <td>6,00</td> <td>4,00</td> <td>2,00</td> <td>0,00</td> </tr> </tbody> </table> <p>A) LANTALDEA (gehienez 28 puntu).</p> <p>1. Prestakuntza eta trebakuntza oro har (gehienez 14 puntu):</p> <p>Bikaina: 14, Ona: 11, Ertaina: 7, Oinarrizkoa: 3, Ez da ematen edo ez dagokio: 0</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bikaina: Zerbitzuak emateko proposatutako lantaldeak oso prestakuntza eta trebakuntza egokia dauka, zerbitzuari balio handia eskaintzeko moduan. • Ona: Zerbitzuak emateko proposatutako lantaldeak prestakuntza eta trebakuntza egokia dauka, zerbitzuari kalitatea eskaintzeko moduan. • Ertaina: Zerbitzuak emateko proposatutako lantaldeak prestakuntza eta trebakuntza nahikoa dauka. • Oinarrizkoa: Zerbitzuak emateko proposatutako lantaldeak oinarrizko prestakuntza eta trebakuntza dauka, baina ez zerbitzuari balio emateko nahikoa. • Ez da ematen edo ez dagokio: Zerbitzuak emateko proposatutako lantaldeak ez dauka ez prestakuntzarik ez trebakuntzarik. 		Gehieneko puntuazioa	Bikaina	Ona	Ertaina	Oinarrizkoa	Ez da ematen edo ez dagokio			% 100	% 75	% 50	% 25	% 0	Lantaldea	28						Prestakuntza eta trebakuntza orokorra	14	14,00	11,00	7,00	3,00	0,00	Taldearen esperientzia profesionala oro har	14	14,00	11,00	7,00	3,00	0,00	Memoria teknikoa	20						Zerbitzuaren antolamendua, erantzuteko denborak eta langileen prestasun-maila	12	12,00	9,00	6,00	3,00	0,00	Lanaren planifikazioa eta esleitutako baliabideekiko koherentzia	8	8,00	6,00	4,00	2,00	0,00
	Gehieneko puntuazioa	Bikaina	Ona	Ertaina	Oinarrizkoa	Ez da ematen edo ez dagokio																																																			
		% 100	% 75	% 50	% 25	% 0																																																			
Lantaldea	28																																																								
Prestakuntza eta trebakuntza orokorra	14	14,00	11,00	7,00	3,00	0,00																																																			
Taldearen esperientzia profesionala oro har	14	14,00	11,00	7,00	3,00	0,00																																																			
Memoria teknikoa	20																																																								
Zerbitzuaren antolamendua, erantzuteko denborak eta langileen prestasun-maila	12	12,00	9,00	6,00	3,00	0,00																																																			
Lanaren planifikazioa eta esleitutako baliabideekiko koherentzia	8	8,00	6,00	4,00	2,00	0,00																																																			

2. Taldearen esperientzia profesionala oro har (gehienez 14 puntu):

Bikaina: 14, Ona: 11, Ertaina: 7, Oinarrizkoa: 3, Ez da ematen edo ez dagokio: 0

- Bikaina: Lantaldeak esperientzia profesionala dauka aurkezten den lizitazioaren xede den lotearen antzeko proiektuetan, oro har maila bikainean, zerbitzuari balio handia eskaintzeko moduan.
- Ona: Lantaldeak esperientzia profesionala dauka aurkezten den lizitazioaren xede den lotearen antzeko proiektuetan, oro har oso maila egokian, zerbitzuari kalitatea eskaintzeko moduan.
- Ertaina: Lantaldeak esperientzia profesionala dauka aurkezten den lizitazioaren xede den lotearen antzeko proiektuetan, oro har maila egokian.
- Oinarrizkoa: Lantaldeak esperientzia profesionala dauka aurkezten den lizitazioaren xede den lotearen antzeko proiektuetan, oro har maila eskasean.
- Ez da ematen edo ez dagokio: Lantaldeak ez dauka esperientzia profesionalik aurkezten den lizitazioaren xede den lotearen antzeko proiektuetan.

*Eskaintza bat ez da onartuko baldin eta, Baldintza Teknikoen Agirian eta karatula honen betetzearen baldintza berezietan adierazitakoaren arabera, taldearen barruan C1 euskarazko gutxieneko hezkuntza-eskakizuna eskaintzen ez bada, zerbitzua oso-osorik euskaraz emateko aukera bermatuko delarik.

*Aurreko loteetako bakoitzaren buruan dauden edo hura zuzentzen duten pertsonak egiaztatu beharko dute dagokion sektorean 10 urtetik gorako esperientzia dutela, eta *curriculum vitae* bidez egiaztatuko dute hori.

B) MEMORIA TEKNIKOA (gehienez 20 puntu).

1. Zerbitzuaren antolamendua, erantzuteko denborak eta langileen prestasun-maila (gehienez 12 puntu):

Bikaina: 12, Ona: 9, Ertaina: 6, Oinarrizkoa: 3, Ez da ematen edo ez dagokio: 0

- Bikaina: Proposatutako zerbitzuaren antolamendua, eskainitako erantzuteko denborak eta langileen prestasunari dagokionez adierazitako mailak, erakunde kontratatzailearen premiei erantzuteko gaitasun bikaina emate dute aditzera, haren proposamenari balio handia eskainiz, erantzun bikain bat bermatzeko moduan.
- Ona: Proposatutako zerbitzuaren antolamendua, eskainitako erantzuteko denborak eta langileen prestasunari dagokionez adierazitako mailak, erakunde kontratatzailearen premiei erantzuteko oso gaitasun egokia ematen dute aditzera, haren proposamenari balioa eskainiz, erantzun bikain bat bermatzeko moduan.
- Ertaina: Proposatutako zerbitzuaren antolamendua, eskainitako erantzuteko denborak eta langileen prestasunari dagokionez adierazitako mailak, erakunde kontratatzailearen premiei erantzuteko gaitasun egokia ematen dute aditzera, erantzun justu samar bat bermatzeko moduan.
- Oinarrizkoa: Proposatutako zerbitzuaren antolamendua, eskainitako erantzuteko denborak eta langileen prestasunari dagokionez adierazitako mailak, erakunde kontratatzailearen premiei erantzuteko oinarrizko gaitasuna ematen dute aditzera, haren alderdi guztietan erantzun egoki bat argi eta garbi nabarmentzen ez delarik.
- Ez da ematen edo ez dagokio: Proposatutako zerbitzuaren antolamendua, eskainitako erantzuteko denbora eta langileen prestasunari dagokionez adierazitako maila, ez dira behar bezala islatzen edo ez dituzte oinarrizko eskakizunak betetzen.

	<p>2. Lanaren planifikazioa eta esleitutako baliabideekiko koherentzia (gehienez 8 puntu):</p> <p>Bikaina: 8,00, Ona: 6,00, Ertaina: 4,00, Oinarrizkoa: 2,00, Ez da ematen edo ez dagokio: 0</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bikaina: Proposamen teknikoan proposatutako mugari eta faseek eta bakoitzari esleitutako langileek oso bideragarritasun handia dute betetzeari dagokionez, soluzioari balio handi bat eskaintzeko moduan. • Ona: Proposamen teknikoan proposatutako mugari eta faseek eta bakoitzari esleitutako langileek bideragarritasun egokia dute betetzeari dagokionez, soluzioari kalitatea eskaintzeko moduan. • Ertaina: Proposamen teknikoan proposatutako mugari eta faseek eta bakoitzari esleitutako langileek bideragarritasun eskasa dute betetzeari dagokionez, eta beraz, beteko direnik ziurtatzerik ez dago. • Oinarrizkoa: Proposamen teknikoan proposatutako mugari eta faseek eta bakoitzari esleitutako langileek oinarri-oinarrizko bideragarritasuna dute betetzeari dagokionez, baina zerbitzuaren alderdiren bat garatu gabe dago. • Ez da ematen edo ez dagokio: Proposamenaren barruan ez da planifikaziorik hartzen. <p><u>*Azpikontatzaioa:</u> lizitatuzaileek eskaintzan adierazi beharko du azpikontatzea aurreikusita duten kontratuaren zatian, dagokion zenbatekoa eta kontratua egitea aginduko zaien azpikontatisten izena eta enpresa-profila adierazita, fidagarritasun profesional edo teknikoari buruzko baldintzak erreferentzia gisa hartuta. Edozein kasutan, azpikontatatu nahi den kontratuaren zatia, gehienez, % 50 izango da.</p>
<p>16. Formularen arabera kuantifikatzeko moduko irizpideei buruzko dokumentazioa (C gutun-azala) eta haztapen-faktoreak.</p>	<p>Eskaintzen C gutun-azalean, formula objektiboen arabera puntuak esleitzeko sistema konposatu bat hartuko da, eta gutun-azal horren barnean bi dokumentu hartuko dira: proposamen ekonomikoa, eta, bidezko bada, erakunde esleipendunak kontratua emateko enplegatuko dituen emakumeen ehunekoa.</p> <p>a) PREZIOA (gehienez, 48 puntu)</p> <p>Lote bakoitzeko aholkularitza-prezioaren irizpidea honela haztatuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gehienez 48 puntu esleitu daitezke, eta 3 faseko formula progresibo bat aplikatuko da, honako espezifikotasun hauekin: <ul style="list-style-type: none"> a) Lizitazio-aurrekontuaren gainean % 5eko deskontua egiten duten proposamenei 37 puntu esleituko zaizkie. b) Lizitazio-aurrekontuaren gainean % 10eko deskontua egiten duten proposamenei 44 puntu esleituko zaizkie. c) Aurreko deskontuaren ehunetik abiatuta, puntu bat esleituko da deskontu gehigarriko % 1 bakoitzeko, 4 puntu gehienez. <p>Puntuak esleitzeko atal bakoitzaren azpian dauden proposamenei, arau proportzional bat aplikatuz esleituko zaizkie puntuak. % 14ko deskontua gainditzen dutenak eskaintza txikiegizat joko dira.</p> <p>b) ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK KONTRATUA EMATEKO ENPLEGATUKO DITUEN EMAKUMEEN EHUNEKOA (gehienez 4 puntu):</p> <p>Formulak aplikatuz balioetsiko da erakunde esleipendunak kontratua emateko enplegatuko dituen emakumeen ehunekoa, honela balioetsi ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Emakumeen ehunekoa % 40tik beherakoa bada, 0 puntu esleituko dira.

	<p>b) Emakumeen ehunekoa % 41etik % 50era bitartekoa bada, 2 puntu esleituko dira.</p> <p>c) Emakumeen ehunekoa % 51tik gorakoa bada, 4 puntu esleituko dira.</p>
<p>17. Betetze-baldintza bereziak.</p>	<p>Zerbitzu-esleipen honetarako, honako hauek baldintza berezizat joko dira loteen gaineko kontratuak betetzeari dagokionez.</p> <p>a) Laneko eta gizarte-segurantzako araudia betetzea:</p> <p>Esleipendunak, kontratua betetzean, Europar Batasuneko eta estatuko Zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotzen duten nazioarteko zuzenbideko xedapenetan ezarritako gizarte- edo lan-alorreko betebeharrak aplikagarriak beteko ditu.</p> <p>b) Hizkuntza-baldintzak:</p> <p>Esleipendunak, taldearen barruan, C1 mailako hizkuntza-eskakizuna izan beharko dute. Zehazki, zerbitzuko hartzaileekin komunikatu behar duen pertsona izango da profil hori ezinbestean egiaztatu beharko duena, baldin eta hura eta zerbitzuaren arduraduna pertsona bera ez badira.</p> <p>BDCCren eta esleipendunen arteko harremanetan euskara erabiliko da normalean. Kontratua betetzeari dagokionez, honako hau da euskara "normalki" erabiltzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko komunikazioetan, kontratua betetzeko eginkizunetan BDCCra jotzen duten langile euskaldunek euskaraz egingo dute hasiera batean. Botere esleitzailerak kontratuaren gauzatzeari atxikitako langileei euskaraz zuzentzen bazaie, eta langile horiek euskaraz behar adinako ezagutzak ez badituzte, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu beharrezko bitartekoak edo euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak, kontratua gauzatzearen ondorioz BDCCrekiko harremana euskaraz izateko. - Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, igorleak euskara soilik aukeratu ezean.
<p>18. Zigorak</p>	<p>Kontratua betetzaren ondorio diren eta 17. klausulan jasotako baldintza bereziak betetzen ez badira, funtsezko ez-betetzetat joko da, eta kontratuaren suntsiarazpena ekarriko du berekin.</p> <p>Baldintza teknikoan agirian aurreikusitako zerbitzuen ez-betetze partziala gertatzen bada, % 5etik 10era bitarteko zigorrak ezarriko dira, ez-betetzearen mailaren arabera.</p>
<p>19. A eta B GUTUN-AZALETAN bildutako dokumentazioa irekitzeko lekua, eguna eta ordua.</p>	<p>Bilbon, 2023ko azaroaren 6an, 12:00etan.</p>
<p>20. Formularen arabera kuantifikagarriak diren irizpideei dagokien dokumentazioa</p>	<p>Bilbon, 2023ko azaroaren 20an, 12:00etan.</p>

irekitzeko lekua, eguna eta ordua (C gutun-azala).	
21. Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko edo prozedura atzera egiteko erabakiagatiko konpentsazioa.	Ez.
22. Prezioak berrikustea	Ez.
23. Aldaeren onargarritasuna.	Ez.
24. Publizitate-gastuak eta zenbatekoa	Ez.
25. Iragarkia EBEOra bidaltzeko data	Ez.
26. Lan-kontratuen subrogazioa	Ez.
27. Bestelako informazioa	<p>2024ko abenduaren 31 baino lehen eman behar dituzte lizitatuzaileek lizitazio honetan aurreikusitako zerbitzuak ematek eratorritako faktura guztiak.</p> <p>Ordaindu beharrekoa eskainitako aurrekontuaren % 50eko bi ordainketatan ordainduko da: % 50 zerbitzuaren hasieran, eta beste % 50a kontratu-betetzearen gehieneko epearen amaieran.</p> <p><u>Eskainitako aurrekontuaren ordainketari dagokionez, ordainsari finko eta aldakorraren konbinazio baten bidez aurreikusten da eskainitako aurrekontuaren ordainketa, aurrekontuaren % 80 finko bezala ezarriz eta gainerako % 20a zerbitzua gauzatzearen arabera (aholkularitzen % 80 gainditzea).</u></p> <p><u>Era berean, agiri teknikoetan ezarritakoaren arabera, aholkularitza ezarritako enpresei baino enpresa gehiagori emateko posibilitatea aurreikusten da, agiri honetan oinarri gisa bildutako zerbitzuen % 20 gehiagorekin gehienez ere. Kasu horretan, eskainitako prezio totala agirian ezarritako zerbitzuen kopuruarekin zatituta kalkulatuko litzateke ezohiko zerbitzu bakoitzaren prezioa, frakzio hori izanik zerbitzu bakoitzeko unitate-prezioa.</u></p>